

11. Iruña-Veleia. Instituto Patrimonio Cultural de España: Estatu kolpea euskal kulturari


Euskeraren Jatorria Elkarte

Azken urte honetako kronika datazioetan zentratu da. Urtebete eta gero, Madrilgo Kultura Ministerioiko IPCE laborategiak egindako “datazioek” (benetako datazioak ez dira egin) berriro frogatu digute gai hau estatu gaia dela eta interes izugarriak daudela grafitoen altxorra ezkutatzeko.

11.1. Iruña-Veleiari buruzko albisteak: 2013tik 2014ko maiatzera

a) Eztabaida zientifikoa Iruñako grafitoen egiazkotasunaren alde: 24 txosten 7ren aurka

Iruñako grafitoak egiazkoak direla dioten txosten gehiago argitaratu ziren iaz, lau zehatz-mehatz. Horrez gain Henrike Knörren gutuna ere gehitu dugu, bere iritziz egiazkoak zirelako nahiz eta berantiarragoak izan (VI-IX. mendeetakoak). Beraz, guztira 24ra heldu dira urte amaieran. Bestetik, 24 txosten edo irizpiden hauetako bigarren bat, Hector Iglesiasena, aldizkari zientifikoaetan argitaratu da. Lehenengoa Antonio Arnaizena *International Journal of Modern Anthropology-n* argitaratu zen eta oraingo hau, Hector Iglesiasena da, *ARSE* aldizkarian.



Bitartean, faltsuak direla dioten txostenak hasieran zeuden 6 txostenak ziren eta aurten ezagutu den IPCErena 7.a da. Hauetatik bi txosten iritziz aldatu zuten hiru irakasleenak (hasieran grafitoak egiazkoak zirela defendatu zuten: Gorrochategui, Santos eta Cipres) eta beste hiru, gai honetan interes gatazka dituztenenak (bi txosten EHUko Arkeologia Sailak egindakoak, indusketa eskuratzeko interesa zuena, denborak erakutsi digun moduan, eta txosten bat Lakarrarena, bere antzineuskeraren teoria hankaz gora ez jartzeko grafitoak faltsuak direla etengabe esan duena). Orain arte egindako txosten guztiak diruz ordaindutakoak izan dira.

Egin diren ostraken aldeko azken lau txostenak eta gehitutako irizpena (gutuna) honako hauek dira:




[20 Idoia Filloy: Altar](#)

Egilea: Idoia Filloy, arkeologo eta historialaria.

Gaia: Nuñezek 2012an aurkitutako aldarearen testua

Laburpena: Lurmenek 12 aldiz aurkitu zuen “Veleia” hitza, Nuñezek bezala. Horrez gain, Nuñezen Veleia inesiboan egon liteke (Veleian), beraz, euskeraz egongo zen, Lurmenek aurkitutako zenbait testu bezala. Bi arrazoi horiek grafitoak benetakoak izateko argudio bihurtu dira

Luzera: 26 orrialde



[21: Antonio Rguez Colmenero: Altar](#)

Egilea: Antonio Rodriguez Colmenero Dok., arkeologo eta epigrafista Santiago Unibertsitateko katedraduna.

Gaia: Nuñezek 2012an aurkitutako aldarearen testua

Laburpena: Antoniok, Nuñezek ez bezala, beste proposamen epigrafikoa egin du aurkitutako azken aldareari buruz. Bere ustean “Veleian” agertu izana, Lurmenek topatutako beste inesiboen antzera, euskeraz egon daitekeela pentsatzera eramaten gaituela dio.

Luzera: 7 orrialde



[22 Alicia Satué: El latín de Iruña Veleia](#)

Egilea: Alicia Satué, Filologia Klasikoan eta Hizkuntzalaritza Indoeuroparrean lizentziatua.

Gaia: Iruña-Veleiako latina

Laburpena: Txosten honetan Alicia Satuék latinez agertutako grafitoak sakonki aztertu ditu. Horretarako, III. mendeko beste lurraldeetan agertutako latin arrunteko testuekin alderatu ditu, beti ere, Iruña-Veleiako testuingurua kontuan hartuz. Bere ustez, bertako grafitoak bat datoz, oro har, latin arruntarekin.

Luzera: 217 orrialde

[23 Análisis de un texto escrito en euskera a finales II-comienzos III](#)

Egilea: Mapi Alonso Fourcade, Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua Ginebrako Unibertsitatean

Gaia: Iruña-Veleiako III. mendeko eta Nafarroako Iruñeko XXI. mendeko ume euskaldun berriek egindako testuetako euskeraren alderaketa

Laburpena: Txosten horretan ez da grafitoak egiazkoak ala gezurrezkoak diren aferan zuzenean sartzen eta bakoitzari uzten dio bere ondorioak atera ditzan, nahiz eta ondorio argiena da egiazkoak izan daitezkeela. Horretarako, Iruña-Veleiako II edo III. mendeko ume batek idatzitako testuak eta Nafarroako Iruñako XX. mendeko ume batek idatzitakoekin alderatu ditu.

Luzera: 40 orrialde



24.- [Iruña-Veleiako euskal idazkunen datazioen inguruan](#)

Egilea: Henrike Knörr, Euskal Filologian Doktorea

Gaia: [Grafitoak noizkoak izan daitezkeen](#)

Laburpena: Henrikerentzat grafitoak ezin dira izan III-V mendeetakoak, VI-IX mendeetakoak baizik.

Luzera: orrialde 1

b) Albiste gehiago

Azken urte honetako kronikak albiste gehiago eman dizkigu:



Sorginaren Txabola



Bastidako gaztelua

Arabako Aldundiak eta EHUK datazioak egiten dituzte... Arabako Iruñan izan ezik

Arabako Aldundiak Bilar herrian dagoen Sorginaren Txabola trikuarri famatuaren indusketa lanak amaitu zituen 2013an. EHUK egindako lanen artean, noski, zenbait datazio egin omen dituzte eta, ondorioztatu dutenez, orain dela 5.000 urte inguru egindakoa da.

Bastidan ere EHUK antzinako gazteluaren indusketa lanak egin ditu eta, besteak beste, zein mendetan erabili izan zen zehaztu dute.

Bitxia da ikustea nola Aldundiak eta EHUKo Arkeologia Sailak hainbat aztarna datatzeari ekiten dioten, Arabako Iruñako grafitoak izan ezik. Zergatik ote da?

2014ko azaroan



[Bideoa ikusi / Link to video](#)

Arabako Iruñako polemika ulertzeko

SOS Iruña-Veleia Elkarteak, Lurmen eta Euskeraren Jatorriaren laguntzarekin, bideo labur bezain argigarria prestatu du.

22 minutuko bideo honetan, gai hau ulertzeko gako nagusiak eskaini dira.

Orain arte 1.500 ikustaldi baino gehiago izan du.



Añana Gesaltza Unescoren Munduko Ondarea izendatzeko eskaera bertan behera

Arabako Foru Aldundiak arkeologia nola kudeatzen duen beste seinale argi bat: egin diren berreraiketak behar bezala egin ez direlako eta ondarea jagoteko baldintzak osorik zaindu ez direlako ez du eskaera kontuan hartu.

Urte osoan

Jatorriberri

33. Jatorriberri 2014 Apirila

Euskeraren Jatorriaren IX. Biltzarra
Maiatzaren 10ean, Gernika-Lumon

Gure hizkuntzak ibenerarain izan zuen harrimena ulertzea eta ordo kokatzea, ezinbestekoa da euskeraren jatorriaren aurreratu nahi badugu.

Aspaldiko kontua badirudi ere, euskoiberismoa egun ezin indarra hartzen ari da. Iberiar eta euskal zirkuluen arteko lotura ukatzen, toponimia, genitiboa (eri), eragilboak (koi) eta partitiboa (koi-a) partekatzen, etab. Honek guztiak, berriro jarri dute eztabaidan aspaldiko gai hau.

[Euskoiberismoa, euskeren Europar kokatzeko treina](#)

Euskoiberismoa / Vascoiberismo

- Virgilio Correia (Portugal)
- Luis Sàigo (Valentzia)
- Antonio Ansoz (Madril)
- Jabier Goñi (Euskal Herria)

Beste gai batzuk / Otros temas

- Edo Nyland (Kanada)
- Jaime Martín (Madril)
- Jon Nikolas (Euskal Herria)
- Jorge Ribero-Maneses (Gaztela)
- Iruña-Veleia

[Egiterraua - itena emateko](#)

Jatorriberri berripapera jarraitu da banatzen ia hilero, hiru bertsioetan: euskeraz, euskeraz eta gazteleraz eta euskeraz eta ingelesez.

Une honetan 6.000 e-posta baino gehiagotara bidaltzen da.

Urte osoan

Artikuluak eta prentsa oharrak

Irtegia, 2014ko maiatzak 4 - 18:48 iritzia

Hasiera BerriaTB Pate Hartu Blogak Berezikiak Kanalak Zuzenekoak

Berria info • Papereko Edizioa • Iritzi

2013-11-19

Iruña-Veleia: 5 urte dataziorik gabe!

KOLDO URUTIA
ARABAKO IRUÑA ARGITZKO BATZORDEA, EUSKARAREN JATORRIA

Arkeometria orain dela 40 urte sortutako zientzia alor bat da. Bere zeregina hondakin arkeologikoak datatzea da. Europar datazioak egiten dibuzten bost bat arkeometria laborategi daude, punta-puntakoak. Grafito bat nozioa den ziurtasun oso zehazteko hilaibete bat behar izaten dute.

Grafitoak datatzea merke da. Datatu daitezkeen grafitoak erdian baino gehiago dira. karbonatuz

Prentsa iritzi artikulua bat eta prentsa oharrak bidali dira, Elkartearen izenean edo SOS Iruña-Veleiarekin eta Lurmenekin batera, batez ere urteurrenaren harira eta gero komentatuko IPCEn txostena dela.

11.2. Lurmen kanporatu zutenaren 5. urteurrena 2013ko azaroaren 19an

2013ko azaroaren 19an 5 urte bete ziren Arabako Foru Aldundiak Lurmen kanporatu zuenetik eta grafitoak faltsuak zirela ebatzi zuenetik. Bost urte dataziorik gabe eta eztabaida itxi nahian. Tasioren komikiek ederki laburtu digute bost urte hauetan nola egin dioten iseka zientziari, zentzudunari eta Euskal Herriko kulturari:




a) Zergatik ez daude datazioak eginda?

Arkeometria orain dela 40 urte sortutako zientzia alor bat da. Bere zeregina hondakin arkeologikoak datatzea da. Europan datazioak egiten dituzten bost bat arkeometria laborategi daude, punta puntakoak. Grafito bat noizkoa den ziurtasun osoz zehazteko hilabete bat behar izaten dute.

Grafitoak datatzea merkea da. Datatu daitezkeen grafitoak erdia baino gehiago dira: karbonatoz estalitako letrak dituztenak, hitzen ebakiduretan ke arrastoak zein sedimentuak dituztenak, egosi aurretik idatzitako adreiluak...

Eliseo Gilek 2008an 100 grafito datatzea eskatu zuen baina Aldundiak eta Adituen Batzordean zeuden EHUko Letren Fakultateko irakasleek uko egin zioten. Zergatik?



b) EHUko Arkeologia Sailak egindako suntsiketeta

2010eko uztailean EHUko Arkeologia Sailak Iruña-Veleiako sektore oso bat suntsitu zuen. Bi hondeamakina erabiliz, 8 minuturo 20 tonako kamioi bat betetzen zuten eta astebetean dena utzi zuten izorratuta. Bertako material arkeologiko guztia suntsitu eta erauzi zuten Arabako Foru Aldundiaren onespenezekin.

Suntsitutako sektorean Eliseo Gil eta Idoia Filloyk zuzendutako Lurmen arkeologia lantaldeak oso grafito interesgarriak aurkitu zituen, besteak beste, abezedario bat.

Horregatik suntsitu zuten? Grafito gehiagorik agertu ez dadin?



c) Eliseo Gil gurutziltzatua

Eliseo Gil, azken 100 urteetako aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuen egin ondoren, euskera historikoa, kristautasunaren hastapena eta garai horretako historia ezagutzeko izugarri garrantzitsuak direnak, kaleratu eta epaitu dute inolako froga zientifikorik gabe.

Frogarik ez dutenez izan, Aldundiak 2 txosten grafologiko egitea agindu zuen “frogak” lortuko zituelakoan baina alferrik, grafologiak ez duelako zeramikarako balio, paperez egindako idazkuntarako baizik. Bitartean, froga sendoak, hau da, datazioak, ez ditu egin nahi izan nahiz eta Eliseok 2008tik etengabe eskatu izan dituen.

Eliseok, bere burua ezin izan du defendatu, Aldundiak, EHUko Letren Fakultateko irakasle batzuen eta El Correo egunkariaren laguntzaz, zabaldutako gezurrezko difamazioen aurrean. Gainerako hedabide gehienek gai honi buruzko boikot informatiboari eutsi diote, jendeak datazioen kontua ez ezagutzeko. Hau da, bertsio ofizialak erabat estali du egia.

Eliseok “bekatu” bakarria egin du: Unibertsitatean irakasten diren eduki batzuen kontra doazen grafito batzuk topatu izan ditu, besterik ez, baina hori ez diote barkatu.

11.3. IPCEren txostena: arkeometriaren kontrako erasoa

Eliseok eskatuta Epaitegiak datazioak egitea onartu zuen 2010ean. Zoritxarrez, prestigio handiko kanpoko laborategietara bidali beharrean, Espainiako Kultura Ministerioko Madrilgo laborategi batek, IPCEk, aztertu ditu eta ostrakak faltsuak direla esan du, gainazaletan metal arrastoak daudelako. Ez dituzte letren gainean zeuden patinak eta kostrak aztertu (noiz egin ziren jakiteko ezinbestekoa zena), eta metal arrastoengatik faltsukeriaren alde egin dute. Ikaragarria estatu honetan dagoen maila!

a) Patinak ez dituzte aztertu. Ez dituzte patinak -idazkunen zuloak- zenbat denbora egon diren estalita aztertu, baizik eta grafitoen gainazaletan zer zegoen. Gainazaletan, denok dakigunez, ukitzean mota guztietako aztarnak geratzen dira (garbitzean, garraiatzean...). Hau da, ez dituzte Epaitegiari eskatu zitzaizkion benetako dataziorik egin.


b) Grafito batzuek lehen ez zituzten metalak dituzte orain. Lau grafito Adituen Batzordeko Madariagak ere aztertu zituen eta hark ez zuen IPCEk aurkitu omen dituen materialak aurkitu. Beste teknika erabili zuen baina, hala ere, txosten bakoitzean topatutako metalen arteko diferentzia handiegia da. Zer gertatu da orduan?

c) Piezak sei urtez Aldundiaren esku egon dira baina Lurmenek ez du ikusteko baimenik izan. Piezak Aldundiaren eskuetan egon dira denbora osoan, zaintza katea apurtuz. Grafitoak Epaitegira eraman behar izan ziren lehenengo egunean, berme minimo bat egoteko. Hau Europako inongo herrialdetan ez lukete onartuko? Ze justizia mota da hemen daukaguna?


d) Piezak garbitu dituzte 6 urte hauetan. Pieza batzuk manipulatu egin dituzte sei urte hauetan. Eliseo Gilek Adituen Batzordeari 100 grafito datatzea eskatzen zien unean –uko egin ziotena-, hasi ziren grafito batzuk garbitzen, beheko argazkietan ikusten den bezala.

e) Herritarri sinistarazi nahi diete balizko faltsugileak 20 metal desberdin erabili dituela. Txosten honek, Lurmen kanporatzeko asmoz, Adituen Batzordeak egin zituen adierazpen batzuekin antza gehiegi dauka: *Descartes* agertzean edo osagai *moderno* bat omen zutenez faltsuak zirela.

Nola utzi zuen Lurmenek grafitoa Aldundiaren esku 2008a baino lehen




Nola zegoen Adituen Batzordeak bere txostenak egin zituenean 2008an zehar



Nola utzi zuen Lurmenek grafitoa Aldundiaren esku 2008a baino lehen



Nola zegoen Adituen Batzordeak bere txostenak egin zituenean 2008an zehar



Ergeltzat hartu gintuzten baina argazkia ikustean *Miscart* zegoela ikusi genuen eta delako osagai modernoa, zeramika itsasteko erabiltzen den kolaren arrastoak baino ez ziren.

Orain sinistarazi nahi digute balizko faltsifikatzaile batek, grafitoak grabatzeko erromatar garaiko burdin bat erabili beharrean, altzairu herdoilgaitzezko bat erabiliko duela. Sinistuko dugula uste dute?

Laborategiak dio hogei bat metal moderno aurkitu dituela (batzuk grabatzeko ere ez dute balio!). Honek esan nahi du ustezko faltsifikatzaileak 20 bat erreminta ezberdin erabili zituela 35 pieza grabatzeko.

f) Laborategiak lau grafito egiazkotzat hartu ditu metalik ez dutelako. Arkeometriaren historiara pasatuko da IPCEn azterketak, izan ere, metalik ez edukitzeagatik Iruña-Veleiako 4 grafito egiazkoak direla esan du. Hau da, erromatar garaiko bi zati zeramika hartu izan bagenu eta bat erabiliz bestearen gainean zerbait idatzi izan bagenu, IPCEk gure idazkia egiazkoa dela esango luke. Nola onartu daiteke patinak aztertu gabe horrelako baieztapenak egitea? Nola onartu dakiok IPCEn bere lana ez egitea, hau da, kostrak eta patinak aztertu gabe egikoazkoak edo gezurrezkoak direla esatea?

g) Laborategiak ez ditu adreiluak eta hezurak aztertu. Laborategiak ez ditu Lurmenek hezurretan eta adreilutan egindako grafitoak analizatzeko eskaera bideratu nahi izan. Aztertzen errazenak dira hauek, eta adreiluetakoak batez ere, guztiz erabakigarriak benetakoak ala ez argitzeko. Adibidez, Leongo buztin batzuk (azken hamarkadetan faltsuak zirela esan ondoren) egiazkoak direla frogatu berri dute teknika honekin.



h) Lakarraren emaztea prentsaurrekoa zalantzan jarri nahian. IPCEn txostena salatzeko emandako prentsaurrekoan, kazetaria ez zen batek eta hasieran, soilik EHUko irakasle gisa aurkeztu zen pertsona batek, grafitoak faltsuak zirela adierazi zuen, marrazkiak egiteko eragatik eta horrelako datazioak egiten egotea dirua alferrik botatzea zela. Zelan zuen izena galdetu zitzaionean, zalantza txiki baten ostean, Ana Iriarte zela esan zuen. Prentsaurrekoa amaitu ondoren jakin izan genuen, Ana, faltsukeriaren aldeko txosten baten egilea den Joseba Lakarraren emaztea dela, faltsukeriaren teoriaren bultzatzaile nagusienetakoa eta gai honetan interes ekonomiko eta akademikoak dituena.